

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Etxe Maitia, Autonomia Pertsonala Garatzeko Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroa (Basauri)**

20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luze-ko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuaren oinarri espezifikokoak, zuzendaritza-laguntzaileen lanbide-kategoriaren C1 azpitaldeari dagokiona.

Erakunde Autonomoaren Lehendakaritzak, 2023ko ekainaren 28an, ebazpen hau onartu du, eta ebazpenak honako hau dio:

Lehenengoa: Zuzendari laguntzailearen lanbide-kategorian, C1 azpitaldean, 20. ordainsari-mailan eta 2.3 kodean lanpostu bat txanda librean hautatzeko deialdia onartzea.

Bigarrena: Zuzendaritza laguntzailearen lanbide-kategorian, C1 azpitaldean, 20. ordainsari-mailan eta 2.3 kodean lanpostua txanda irekiaren bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikokoak onartzea.

Hirugarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialan argitaratzeko agintzea, bai eta deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean ere.

Laugarrena: Deialdia onartzeko ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, edo, aukeran, berraztertze-errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Basaurin, 2023ko uztailaren 18an. — Alkatea, Asier Iragorri Basaguren



**IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK,
20/2021 LEGEAREN 6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOA
C1 AZPITALDEKO ZUZENDARITZAKO LAGUNTZAILEA LAN-BIDE
KATEGORIARI DAGOKIONA**

1. Deitutako plazak

C1 azpitaldeko zuzendaritzako laguntzailea lan-kategoriarako lanpostu 1erako deialdia egiten da, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

Plaza kopurua	Lotutako lanpostu kopurua	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoak, etab.)
1	ZUZENDARITZAKO LAGUNTZAILEA (2.3 kodea)	2.HE nahitanahiezko derrigortasuna C1 azpitaldea. 20. Ordainsari maila. Urteko Ordainsari gordina 41.810,96 euro

2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. C1 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa honako hau da: 14 euro.

2.3. Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, Batxilergoa, 2. mailako Lanbide Heziketa edo baliokide titulazioa eskatzen da.

3. Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak

3.1. Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 2.HE hizkuntza-eskakizunak bete beharko dira. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

4. Hautaketa-prozesua

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituiko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia-kopurua bakarrik baloratuko da.

Lehiaketa ez da baztertzailerik izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien %_25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 10.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.1.2. Bigarren zatia: euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailerik, lotutako lanpostuak dituzten, 2.HE hizkuntza-eskakizuna duten eta nahitaezko izaera duten lanpostuak dituzten hautagaientzat.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Etxe Maitia Udal Egoitzari erregistro horretan egiaztatzeko.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin beharko da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeko eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko buruzkoa).

2.HE. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoa eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien



bidez egiaztatzetik salbuestekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimen-duen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia gai edo ez-gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako hautagai diren pertsonentzat.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, C1 azpitaldeko zuzendaritzako laguntzailea lan-bide-kategorian emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.

**I. ERANSKINA****MEREZIMENDUEN BAREMOAK**

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) Esperientzia: gehienez 80 puntu**a.1. Esperientzia orokorra**

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, zuzendaritzako laguntzaile kategorian, C1 azpitaldean, lan egindako egun bakoitzeko 0,0274 puntu.

a.2. Esperientzia espezifiko

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, berezita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen Administrazioan zuzendaritzako laguntzaile kategorian, C1 azpitaldean egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0,00914 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Titulazioak eta probak gainditzea, karrerako funtzio finko edo lan-kontratu finko izaera lortzeko prozeduretan

Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

- b.1.** Deitutako plazara sartzeko eskatzen dena baino goragoko prestakuntza akademikoko maila batean (1) dagokion titulua izateagatik, betiere titulazioak deitutako plazari lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritz gero: 10 puntu.
 - C1: Unibertsitate-graduak titulazioa edo baliokidea (MECES 2. maila)
- b.2.** Informatikako ezagutzak: Informatika-ezagutzak baloratuko dira, 20 puntu gehienez, eta 5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:
 - Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
 - Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
 - Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
 - Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
 - Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren bertsio ezberdinak egiaztatzen badira, horietako bat bakarrik baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarritzko maila egiaztatutzat joko dira.